fagorederlangroup

EROSKETEN POLITIKA

HUMANITY AT WORK

MONDRAGON

EROSKETEN POLITIKA

1. Helburua

Erosketen politika honen helburua da Fagor Ederlanen hornitzaileen eta erosketa prozesuen gestioa arautzen duten printzipioak eta jarraibideak ezartzea, Fagor Ederlanen estrategian eta kudeaketan bertan integratutako xede, estrategia eta jarduera ildo espezifikoen bidez.

2. Aplikazio eremua

Erosketen Politika hau Fagor Ederlan Taldearen jarduera, negozio eta langile guztiei aplikatu beharrekoa da, baita hirugarrenekin dituen harremanei eta bere izenean egiten den edozein jarduerari ere.

3. Konpromisoak

Fagor Ederlanek erosketen eta hornitzaileen kudeaketa modu arduratsu eta iraunkorrean garatzeko konpromiso irmoa hartzen du, eta hornitzaileei Fagor Ederlanen jokabide kodeari atxikitzea exijituko die edo, bestela, Fagor Ederlanek duenaren baliokidea den jokabide kode propioa izan dezatela eskatuko die.

Erosketen kudeaketak honako helburu hauek ditu:

- Hornitzaileen panel fidagarria eta zabala edukitzea, lantegiak etenik gabe jardunean egotea bermatzeko eta azken bezeroari emango zaion erantzunak kalitate, kostu, zerbitzua eta jasangarritasunari dagokienez ezarritako parametroak beteko dituela ziurtatzeko.
- Taldeko lantegi guztiei modu lokalean eta/edo globalean erantzungo dieten produktu eta zerbitzuen hornitzaile lehiakorrak garatzea.
- Hornitzaileek tokian-tokiko eta nazioartean aplikatu beharreko lege araudia beteko dutela bermatzea.
- Hornitzaileekin errespetuan eta lankidetzan oinarritutako harremanak izatea. Ez onartzea proiektuaren ezein fasetan hornitzaile bat diskriminatzea, haren genero, arraza, nazionalitate, erlijio edo ideologia politikoagatik, ez eta negoziazioaren oinarri eta baldintzekin objektiboki loturarik ez duen beste edozein ezaugarrirengatik ere.
- Lankidetza eta konfiantzazko harremanak edukitzea hornitzaile gakoekin, non elkarlana, irekitasuna eta erantzuna emateko azkartasuna ezaugarriak izango diren.
- Ingurumenean inpakturik txikiena duten materialak eta produktuak aukeratzea.
- Ezagutza berriak sartzea gure erakundean gure hornitzaileen bitartez (ekipo ondasunen, lehengaien eta zerbitzuen hornitzaileak, besteak beste).
- Erosketetarako sinergiak esploratzea eta indartzea Mondragon Taldearen barruan
- Hornitzaileak Fagor Ederlaneko Kalitate eta Ingurumeneko Politikarekin bat etorraraztea.
- Hornitzaileak ebaluatzea, ez soilik kalitate, kostu eta zerbitzu irizpideengatik, ingurumenari, gizarteari eta etikari begira egiten dutenagatik ere bai, tartean jarduera hauek bultzatuz:
    - Berotegi Efektuko Gasen emisioak murriztea.
    - Material birziklatuak erabiltzea eta ekonomia zirkularra sustatzea.
    - Giza eskubideak eta lan eskubideak errespetatzeko politika aktiboak.
    - Gardentasuna ingurumeneko eta gizarteko arriskuak kudeatzean.

- Era berean, erosketa taldeei enpresa barruan jasangarritasunaren arloko formazioa ematea sustatuko da eta jarduera adierazleak (KPIak) ezarriko dira hornidura katea eta Taldearen jasangarritasun helburuak zenbateraino lerrokatuta dauden neurtzeko.

Copyright ©, Fagor Ederlan, S.Coop. - Copyright, Confidential and proprietary, all rights reserved - property of Fagor Ederlan, S.Coop .This information carrier and the information it contains are the property of Fagor Ederlan, S.Coop. Any reproduction, disclosure or use of either is prohibited without the prior written consent of Fagor Ederlan, S.Coop. The same provisions apply to any oral communications related thereto accordingly.

4. Onarpena eta jarraipena

- **Onarpena:** Politika hau Fagor Ederlan Taldeko **Zuzendaritza Kontseiluak** landu eta onartu du, eta bera da bere aplikazioaren arduraduna. Horrela, beraz, agerian geratzen da goi zuzendaritzak Jasangarritasun Estrategiarekin duen konpromisoa eta enpresaren estrategia globalean integratzen dela ziurtatzen da.

- **Jarraipena:** Erosketen Gestio Planaren berrikuspenaren barruan, zeina urtero egiten den, politika honen inplementazioa gainbegiratzen da, eta gainbegiratze horren berri ematen zaio zuzenean Fagor Ederlan Taldearen Zuzendaritza Kontseiluari.

- **Berrikuspena:** Politika hau berrikusi egiten da, eta, hala badagokio, eguneratu, aldizka, beti Fagor Ederlan Taldeak arlo horretan dituen anbizioak erakutsi nahian eta interes taldeen iruzkin eta iradokizunez gain legedian izandako aldaketak kontuan hartuta.

Data	**Nork onartua**
2025/10/21	Fagor Ederlaneko Zuzendaritza Kontseilua

Copyright ©, Fagor Ederlan, S.Coop. - Copyright, Confidential and proprietary, all rights reserved - property of Fagor Ederlan, S.Coop .This information carrier and the information it contains are the property of Fagor Ederlan, S.Coop. Any reproduction, disclosure or use of either is prohibited without the prior written consent of Fagor Ederlan, S.Coop. The same provisions apply to any oral communications related thereto accordingly.